

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**2007/08 denboraldia**

## **35ZK. DUN GUTUNA**

### **HIRUGARREN MAILARAKO IGOERA-ALDIA**

Hirugarren mailako IV. taldean maila-igoerak direla-eta sor daitezkeen hutsuneak betetze aldera, eta Batzorde Nagusian hitzarturiko txapelketa-oinarriari jarraiki, goian aipaturiko igoera-aldia antolatu da, ondoko arauak oinarri harturik:

#### **1. Parte-hartzaileak**

Lurralde bakoitzeko Laugarren mailan bigarren postuan sailkaturiko taldeak:

- AURRERA DE VITORIA C.D.
- BERIO F.T.
- GATIKA K.T.


#### **2. Txapelketa-sistema**

Igoera aldia itzuli bakarreko Liga-sistemaren bitartez jokatu da.

#### **3. Datak**

Partidak ondoko egunetan jokatu dira: ekainaren 8an, 15an eta 22an.

.../...



- 2 -

#### **4. Partiden Jardunaldiak eta Ordutegiak**

Partiden jardunaldi eta ordutegi ofizialak honako gutunean zehaztu dira. Hala ere, partida antolatzen duen klubak larunbat arratsaldera aurreratu dezake, aurkariari baimenik eskatu gabe. Hori alde batera utzirik, jardunaldia aldatu nahi duen klubak Euskadiko Federakundeari zazpi egun lehenago jakinarazi behar dio, betiere aurkariari baimena eskaturik. Aurkariak ere era berean adierazi behar du baimen hori.

Partidaren ordutegia nahiz jokalekua Euskadiko Futbol Federakundeari jakinarazi behar zaizkio ( Tel.: 94-4731900 eta Fax 94-4732221 ), norgehiagoka jokatu baino zazpi egun lehenago. Aurreko guztia talde aurkariari ere jakinarazi behar zaio.

#### **5. Jokalarien aldaketak**


Partidetan, gehienez, bos aldaketa egin ahalko dira.

#### **6. Berdinketak**

EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 35. Artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- d) Aldian jasotako eta egindako golen arteko alde handiagoa duen taldea lehenetsiko da.
- e) Gol gehien egin dituen taldearen alde.
- f) Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

.../...



- 3 -

## **7. Epaileak**

Partidak zuzentzeko Laugarren mailako epaileak aukeratuko dira. Lehian ariko diren taldeena ez den beste Lurralde Federakunde batekoak izango dira, eta gastuak partida antolatzen duen taldearen pentzudakoak izango dira.

## **8. Diziplina Batzordea**

Aldi honetan parte hartzen duten taldeei zein horietako jokalaria, zuzendari nahiz buruei dagozkien diziplina arloko gorabeheretan ez da etenik egingo aldia hasterakoan, ondokoei dagokienez: zigorrak betetzea, arau-hausteetan berriro jaustea, txartelak metatzea nahiz bestelako ondorioak.


Partidak bukatutakoan, epailearen aktak Euskadiko Futbol Federakundera bidali behar dira, Diziplina Batzordeak erabakia hartu eta jakinaraz dezan, hala behar izanez gero.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren ganean egon daitezen, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbo, 2008ko ekainaren 2a

**EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA**

**IDAZKARI NAGUSIA**



## FASE DE ASCENSO A TERCERA DIVISION

## HIRUGARREN MAILARAKO IGOERA-ALDIA

### EGUTEGIA / CALENDARIO

**EKAINAREN 8AN / 8 DE JUNIO**

GATIKA – AURRERA VITORIA

BERIO

(ATSEDENA)  
(DESCANSA)

**EKAINAREN 15AN / 15 DE JUNIO**

BERIO – GATIKA

AURRERA VITORIA

(ATSEDENA)  
(DESCANSA)

**EKAINAREN 22AN / 22 DE JUNIO**

AURRERA VITORIA – BERIO

GATIKA  
(ATSEDENA)  
(DESCANSA)

-0-0-0-0-0-0-0-0-0-